

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN  
TOKI ADMINISTRAZIOAADMINISTRACIÓN LOCAL DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## Udalak

## AMURRIO

5948

**Behin betiko onarpena ematea gizarte eta kultura zerbitzuetako arloek antolatutako ikastaroak emateagatik tasari eta tasa hori arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 20. eranskinari.**

Udalbatzak, 2010eko uztailaren 22an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion gizarte eta kultura zerbitzuetako arloek antolatutako ikastaroak emateagatik tasari eta tasa hori arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 20. eranskinari. Onarpenari buruzko erabakia ALHAOn argitaratu zen abuztuaren 11n, eta legez ezarritako jendaurreko informazio aldia igarota, erreklamaziorik eta proposamenik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe xedatzen baitu martxoaren 5eko 11/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.3 artikulua. Legegintzako errege dekretu horrek Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartu zuen.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, oso-osorik ematen da argitara ALHAOn, indarrean sar dadin.

**“GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUETAKO ARLOEK  
ANTOLATUTAKO IKASTAROAK EMATEAGATIKO  
TASA ARAUTZEN DUEN 7 ZENBAKIKO  
ZERGA ORDENANTZAREN 20. ERANSKINA”**

## 1. artikulua. Lege oinarria

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, gizarte eta kultura zerbitzuetako arloek antolatutako ikastaroak emateagatik ordaindu beharreko tasak ezartzen dira.

## 2. artikulua. Subjektu pasiboa

Amurrioko Udalak antolatutako ikastaroetan matriculatu diren pertsona fisiko eta juridikoek ordaindu beharko dute gizarte eta kultura zerbitzuetako arloek antolatutako ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa hau.

## 3. artikulua. Gizarte eta kultura zerbitzuetako ikastaroen tarifa

1.- Amurrioko Udalaren gizarte eta kultura zerbitzuetan arlo hauek daude: Kultura, Liburutegia, Kirolak, Jaiak, Berdintasuna, Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Antzerkia. Hori dela eta, ordenantza hau arlo horiek antolatutako ikastaroetan aplikatuko da, baldin eta ikastaro horiek ez badute berariazko zerga ordenantzarik.

2.- Ikastaro bakoitzagatik ordaindu beharreko zenbatekoa ikastaroa hasi baino lehen ordainduko da. Amurrioko Udalak adieraziko duen banku kontuan egin beharko da diru sarrera.

3.- Ikastaroa hasitakoan ez dira tasak, inola ere, itzuliko. Tasak osorik ordainduko dira, ikasleak ikastarora joan gorabehera.

Tasak hurrengo formularen bitartez arautuko dira:

Ikastaroaren kostu osoari lor litekeen dirulaguntza kenduko zaio; hortik ateratzen den emaitza zati ikastaroa egin lezakeen gehieneko ikasle kopurua egingo da eta horixe izango da ikastaroaren prezioa pertsonako.

## Municipios

## AMURRIO

5948

**Aprobación definitiva de la imposición de la Tasa por la Prestación del Servicio de impartición de cursos organizados por las áreas de los Servicios Socioculturales, y del Anexo 20 de la Ordenanza Fiscal nº 7, regulador de la correspondiente Tasa.**

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada el día 22 de julio de 2010, aprobó provisionalmente la imposición de la Tasa por la Prestación del Servicio de impartición de cursos organizados por las áreas de los Servicios Socioculturales, y el Anexo 20 de la Ordenanza Fiscal nº 7, regulador de la correspondiente Tasa. Publicado dicho acuerdo, en el BOTHA de fecha 11 de agosto, y habiendo transcurrido el plazo de información pública legalmente establecido, sin que se haya presentado reclamación o sugerencia alguna, se entiende definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, según lo dispuesto en el art. 17.3 del Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

En cumplimiento de lo previsto en el art. 52 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento, en el art. 70.2 y 111 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y el art. 16.4 de la Norma Foral 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales, se lleva a cabo su publicación íntegra en el BOTHA, para su entrada en vigor.

**“ANEXO 20 DE LA ORDENANZA FISCAL MUNICIPAL Nº 7  
REGULADORA DE LA TASA POR LA PRESTACIÓN  
DEL SERVICIO DE IMPARTICIÓN DE CURSOS ORGANIZADOS  
POR LAS ÁREAS DE LOS SERVICIOS SOCIOCULTURALES**

## Artículo 1. Fundamento Legal

De conformidad con lo establecido en el artículo 20 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, se establecen las Tasas por la prestación del Servicio de impartición de cursos organizados por las Áreas de los Servicios Socioculturales.

## Artículo 2. Sujeto pasivo

Se hallan obligadas al pago de la tasa por la prestación del Servicio de impartición de los cursos organizados por las Áreas de los Servicios Socioculturales las personas físicas y jurídicas que se matriculen en los cursos organizados por el Ayuntamiento de Amurrio.

## Artículo 3. Tarifa de los cursos de los Servicios Socioculturales

1.- Los Servicios Socioculturales del Ayuntamiento de Amurrio están integrados por las siguientes áreas: Cultura, Biblioteca, Deportes, Fiestas, Igualdad, Euskera, Educación, Juventud y Teatro. Por ello esta Ordenanza se aplicará a los cursos organizados por dichas áreas siempre y cuando esos cursos no cuenten con una Ordenanza Fiscal específica.

2.- Los resultantes de cada curso serán abonados mediante el ingreso en la cuenta bancaria que al efecto señale el Ayuntamiento de Amurrio, antes del inicio de cada curso.

3.- En ningún caso se contempla el reintegro de las tasas una vez iniciado el curso. Las tasas se pagarán en su totalidad independientemente de los días que el alumnado acuda al curso.

Las tasas se registrarán a través de la siguiente fórmula:

Al coste global del curso, se le restará la posible subvención que se obtenga, el resultado que se consiga de esta operación, se dividirá entre el número máximo de personas que puedan acudir al curso y se obtendrá el precio por persona del curso.

## 4. artikulua. Matrikulazioa

Matrikula eta ordainketa egiteko epeak hasi baino lehen, izena aurretik emateko epea irekiko da. Izena aurretik emateko epea bukatutakoan, onartutako en zerradak udaletxeko ediktu taulan edota Kultura Etxeko iragarki taulan jarriko dira. Ikastaroan izena emandako pertsona kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada, plazen zozketa egingo da. Amurrion errolatutako pertsonen lehentasuna izango dute errolatuta ez daudenen aurretik. Era berean, Amurrion errolatuta egon ez baina bertako ikastetxe batean matrikulatutako ikasleek herrian errolatuta ez daudenak baino lehentasun handiagoa izango dute. Gainera, matrikulazioak benetako balio izan dezan tasa ordaindu izana egiaztatzen duen banku agiria aurkeztu beharko da; betiere matrikulazio epearen barruan.

5. artikulua. Gizarte eta kultura zerbitzuetako arloek antolatutako ikastaroen hobariak.

1.- Tasen ehuneko 40ko hobaria ofizioz egingo da, baldin eta ikasleek ikastaroa hasten den egunean Amurrion gutxienez bi urte errolatuta daramatzatela egiaztatzen badute.

2.- 5.1 puntua betetzen duten ikasleek tasen ehuneko 10eko hobaria izango dute, baldin eta ikasleek familia ugariaren agiria duen familia unitate bateko kideak direla eta familia unitate osoa Amurrioko udalerrian errolatuta dagoela egiaztatzen badute. Nahitaezkoa izango da familia ugariaren agiriaren edo txartelaren fotokopia konpultsatua aurkeztea matrikula egiterakoan.

3.- 5.1 puntua betetzen duten ikasleek tasen ehuneko 10eko hobaria izango dute, baldin eta ikasleek langabezian daudela egiaztatzen badute. Nahitaezkoa izango da langabe txartela aurkeztea matrikula egiterakoan.

4.- 5.1 puntua betetzen duten ikasleek tasen ehuneko 10eko hobaria izango dute, baldin eta ikasleek ikastaroa hasi baino lehen 65 urte edo gehiago beteta dituztela egiaztatzen badute.

5.- Berdintasunaren aldeko balioak eta euskararen erabilera sustatzeko asmoz, 5.1 puntua betetzen duten ikasleek Berdintasun eta Euskara arloek antolatutako ikastaroetan tasen ehuneko 10eko hobaria izango dute, baldin eta Amurrion errolatuta badaude.

6.- Ordenantza honen 5.2, 5.3 eta 5.4 puntuetan adierazitako hobariak ezin izango dira metatu. Bat baino gehiago izatekotan, erabiltzailearentzat onuragarriena dena aplikatuko da.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza indarrean sartzen den egunean sortuko da tarifa.

## AZKEN XEDAPENA

Gizarte eta kultura zerbitzuetako arloek antolatutako ikastaroak emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7. 20 zenbakiko eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatu edo indargabetzen den arte. “

Erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, halaxe xedatzen baitute Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 19. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 107.3 artikuluan. Halaber, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez ditzakete.

Amurrio, 2010eko irailaren 17a.– Alkatea, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

## Artículo 4. Matriculación

Se abrirá un plazo de preinscripción previo al plazo de matrícula y de pago efectivo. Cerrado dicho plazo de preinscripción se colocarán las listas de personas admitidas en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento y/o en el tablón de anuncios de la Casa de Cultura. En caso de que el número de personas apuntadas al curso exceda al de plazas disponibles, se procederá a la realización de un sorteo de las mismas. Las personas empadronadas en Amurrio tendrán prioridad sobre las no empadronadas. Así mismo, tendrá preferencia el alumnado no empadronado y matriculado en un centro escolar de Amurrio, con respecto a las personas no empadronadas. Además, la matriculación se hará efectiva tras la presentación del documento bancario que certifique el pago de la tasa y dentro del plazo de matriculación establecido.

Artículo 5. Bonificaciones de los cursos organizados por las Áreas de los Servicios Socioculturales.

1.- Se concederá de oficio una reducción del 40 por ciento de las tasas correspondientes cuando se acredite que el alumno o alumna se encuentra empadronada en Amurrio, con una antigüedad mínima de dos años, computados a fecha de inicio del curso.

2.- Para el alumnado que cumpla el punto 5.1, se considerará además una reducción del 10 por ciento de las tasas resultantes cuando se acredite que el alumno o alumna pertenece a una unidad familiar que acredite estar en posesión del título de familia numerosa y que toda la unidad familiar está empadronada en el municipio de Amurrio. Será imprescindible la presentación de fotocopia del título o carné de familia numerosa en el momento de formalizar la matrícula.

3.- Para el alumnado que cumpla el punto 5.1, se considerará además una reducción del 10 por ciento de las tasas resultantes cuando se acredite que el alumno o alumna está en situación de desempleo. Será imprescindible la presentación de la tarjeta del paro en el momento que formalice la matrícula.

4.- Para el alumnado que cumpla el punto 5.1, se considerará además una reducción del 10 por ciento de las tasas resultantes cuando se acredite que el alumno o alumna tiene 65 años o más cumplidos antes del inicio del curso.

5.- Para el alumnado que cumpla el punto 5.1 y con objeto de fomentar los valores de igualdad y el uso del euskera, aquellos cursos organizados por las Áreas de Igualdad y Euskera tendrán una reducción del 10 por ciento de las tasas resultantes en las personas empadronadas en Amurrio.

6.- Las bonificaciones contempladas en los puntos 5.2, 5.3 y 5.4 de la presente ordenanza no serán acumulables entre sí. En caso de coincidencia, se aplicará la más beneficiosa para los y las usuarios.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La tarifa se devengará el día de la entrada en vigor de la Ordenanza.

## DISPOSICIÓN FINAL

El Anexo nº 7. 20 regulador de la Tasa por la Prestación del Servicio de impartición de cursos organizados por las Áreas de los Servicios Socioculturales, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHÁ, y permanecerá vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación. “

Contra el presente acuerdo, en aplicación de lo dispuesto en el art. 19 del Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y 107.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso administrativo ante la Sala de los Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOTHÁ, sin perjuicio de interponer cualquier otro recurso que estimen pertinente.

Amurrio, 17 de septiembre de 2010.– El Alcalde, PABLO R. ISASI AGUIRRE.